



ITSASOA - EMAKUMEA - NATURA



Zergatik lan hau?

Emakumea naizen aldetik eta itsasoa maite dudan unetik,
Emakumeak Portuan Deskargatzen lana iruditu zitzaidan lanik
egokiena berrinterpretazio lan bat egin ahal izateko. Behin lana ikusi
ondoren eta itsasotik bizi den jende ezberdina irizpidetzat harturik,
emakumeen gaur egungo eta lehengo konparaketa bat egitea otu
zitzaidan pertsona ezberdinen esanak kontuan harturik.

Honekin batera, nire ikasketak alde batera utzi gabe, itsasoan
sortzen diren hondakinei bigarren bizitza bat ematea erabaki nuen,
modelo zirkularra erabiliz.

Beti izan dut gustuko bai itsasoa eta baita natura ere, denok itsasoa
baikara eta beti izango baikara!



ITSASOA
eta
EMAKUMEA

SARRERA

*Boga, boga
mariñela
mariñela
joan behar degu
urrutira
urrutira
bai Indietara,
bai Indietara.
Ez det,
ez det,
ez det,
nik ikusiko
zure kai ederra
kai ederra
Agur,
agur,
agur,
Ondarroako
itsas
itsaso bazterra,
itsas
itsaso bazterra.
Mariñela,
mariñela,
boga!
mariñela.*

Ez det , ez det, ez det nik ikusiko zure kai ederra, kai ederra...

Denbora luzez itsasora joatea tokatu izan zaio euskal itsas gizonari, etxetik urrun egotea, beren familia eta emazteak herrian utzita, berriz ere ikusiko ote zituzten ziur jakin gabe.

Zenbat emakume ote dira itsasoa gorroto dutenak? Bizitzaren bidea egun batean moztu ziotenak? Aurrera bakarrik egin behar izan dutenak? Zenbat ote dira? Nolakoan ote ziren?

Emakume zuzenak, okerrak, kirtenak, moja txintxoak eta zerrama irtenak, itsusiak, politak, atletak, herrenak: konplize ditut eta maite ditut denak.

Lotsatiak, ausartak argalak, gizenak, iletsuak, soil-soilak, marimutilenak, katemeak, gorilak panterak, zezenak: konplize...

Langileak, alferrak, lanik ez dutenak, tuntunak, mediokreak, klaseko lehenak, ale desegokiak, andre txit gorenak: konplize...

*Lehen munduko emeak, kapitalistenak, lur usaia
daukaten andre indigenak, zuri, gorri, horiak, beltzetan
beltzenak: konplize...*

*Ama onak ta txarrak, ama ez direnak, lurrera jausi arte
mozkortzen onenak ta umeen merienda usaina dutenak:
konplize...*

*Markesaren alabak, neskame gizenak, printzesak ta
sorginak, ogroak, sirenak, Maritxuak, Bartolo itxura
dutenak: konplize...*

Izan zintezken sirena, Bartolo itxuraduna edota tuntuna, baina
itsasotik bizitza aurrera eramateko ezin izan alferra.

*Itsasoan urak handi dire,
murgildu nahi dutenentzat
gure herriko lanak handi dire,
astun dire, gogor dire,
zatiturik gaudenontzat.*

Itsasoak hainbat eta hainbat poz, tristura, larritasun eta batez
ere, lan eman dio itsas herrietan bizi izan den emakumeari.
Bizibide izan dute horren handia den eta garaitezina dirudien
ur masa gazi hau eta gorrotatu bezainbeste maitatu dute
urteetan zehar.

Orri hauetan ikusiko da Emakumearen, Itsasoaren eta
Naturaren erlazioa, baina gehienbat Emakumeak gaur egun
itsasoan duen egoera.

ATZERA BEGIRA JARRIZ...

“Emakumeak Itsasoko Aingura Mugiezin”

Arrantzaren inguruko lanak sexuaren arabera banatuak egon izan dira Euskal Herriko itsas herri guztietan eta horrek horrela jarrai oraindik ere. Gizonak arrantzara joateko betebeharra zuten, itsasontziak prest zituztela ikusi, sareak presto zituztela ziurtatu, lanaldiak sorturiko gosea asetzeko janaria hartu, sagardoa eta urarekin tartekatu eta itsasorako bidea hartzen zuten.

Arrainarekin egiten zen eskulan guztia berriz emakumeei egokitzen zitzaien.

Baina, itsasoarekin emakumeak izan duen harremana kasualitate hutsa ote?

Ez, ezta kasualitate hutsa izan itsasoarekin izan duen harremana. Emakumea aingura mugiezin bat izan da

itsasoa, ontzia portura lotzen zuen txikota, eta zehatzago esanda, hamarkadetan zehar berebiziko garrantzia izan zuen eskulan merkea. Oso merkea.



Euskal kostaldean itsasoarekin estuki lotutako ogibideak zituzten emakumeek, eta ez ziren soilik sare konpontzaileak, saltzaileak edo eta kontserba lantegietako beharginak izaten. Batelariak ere izaten ziren, esaterako. Pasaiaikoak ziren

ezagunenak, ziur asko. Hainbat lan egiten zituzten. Esaterako, Pasaiara iritsitako kanpotarrak itsas ondotik pasieran eramaten zituzten. Baina ez zen hura zehazki haien betebeharra. Gehientsuenetan merkantziak itsasontzietatik porturaino eramaten zituzten. Batzuetan itsasontziei ere laguntzen zieten portuan sartzen edo ateratzen. Eta, askotan, beraien artean, dibertimendu gisa, estropadak egiten zituzten.

Beste zonalde batzuetan, adibidez, gabarrera gisa ezagutu izan ziren. Zumaia inguruetan esaterako izen hori ezartzen zitzairen, eta bateleraren lan berbera egiten zuten; garraio zubi ziren portura gehiago gerturatu ezin zuten itsasontzien zamak lehorreratu.

Beste ofizio bat, zirgariena. Zirga ontziak arrastaka eramateko erabiltzen zuten soka luzea da. Zirgariak ziren, zamaketariekin batera, Bilboko portuan lan egiten zuten emakumezkoen bi kolektiboak. Ibaiak zonalde batzuetan ez zuen nahikoa altuerarik eta, hartara, itsasontzi askok ezin izaten zuten aurrerago joan. Beraz, barruan zeramatzen merkantziak gabarra batzuen gainean jartzen ziren eta emakumeek zirgatik


tira eginda eramaten zituzten ibai ertzetik helmugaraino. Langile gehienak emakumeak baziren ere, haien artean egoten zen gizonik, gehientsuenak adinduak edota zamaketari gisa aritzeko dagoeneko gaitasun nahikorik ez zutenak.

Lan guzti hauek etxeko lanekin batera egin beharra izaten zituzten, emakume askoren kasuan beren gizonak itsasoan izaten baitziren.

Etxea txukun mantendu, haurrak zaindu, etxera diru sarrera txiki bat ekarri eguneko otorduak aurrera eramateko eta gainera beren gizona etxera etorriko ote zen ezin egonarekin egoten ziren, dudarik gabe, beren bizitza gogorra zela frogatuaz.

Gizonak berriz, itsasoan hilabeteak pasa ondoren, portura iritsi eta etxera joaten ziren denbora luzez galdutako loa berreskuratzerara.

Jarraian eginiko eskeman errazago ikus daiteke gizon eta emakumeen lan karga bereizketa.



BATELARIAK

ENPAKATZAILEAK

ADMINISTRARIAK

ZIRGARIAK

SALTZAILEAK

ETXEKO
LANAK

SAREGILEA

KONTSERBAGILEAK

ARRANTZA



GAUR EGUN BERRIZ...

Urteak aurrera egin ahala Euskal Herriko ohiturak eta tradizioak pixkanaka oroipenen kaxan gordetzen joan dira.

Gero eta gutxiago ikusten dira emakumeak kiskilak saltzen edo eta arrantzaleek ekarritako sareak konpontzen. Gero eta emakume gutxiago dira arraina hartu eta inguruetako herrietara saltzera joaten direnak, gero eta gutxiago denbora luzez beren gizona ikusi gabe egoten direnak, gero eta gutxiago arrantzatik bizi direnak.

Gero eta arrantza ontzi gutxiago egotearen arrazoia da gaur egungo egoeraren iturri eta ontzi gutxipen hau gaur egungo gazteen bizi bide ezberdinaren ondorio da.



SANTIAGO - MARIAN



Ikerkuntza honetan, gaur egungo eta lehengo egoeren arteko konparaketa bat egin nahian, alde batetik Getariako aita alaba batzuen testigantza izan dut, biak petrolero lanetan arituak eta ondoren Getarian bertan, sareak konpontzen aritu den Maria Luisarena.

Marian Aizpuruk 45 urte ditu eta Getariarra da jaiotzez eta izatez. 22 urte daramatza portuan lanean bere aita Santiago Aizpurren, 75 urte, postua betez.

Zer egiten du bakoitzak zehazki, zein da edo izan da zuen lanaren funtzioa?

Santiago Aizpuru. Herriko petroleroa izan naiz urteetan. Nire eginbeharra portura itsasontzian iristen ziren bezain pronto gasoila botatzera joatea zen.

Marian Aizpuru. Lan honek ez du aldaketa handirik jaso egia esan, nire aitak egiten zuen berdina egiten dut nik, itsasontziei gasoila bota.

Zenbat urte daramazue honetan?

S.A. Nik 27 urte egin nituen petrolero gisa. Gaur egun, nahiz eta jubilatua egon, "petrolero" ezizenez ezagutzen naute. (Irribarre artean)

M.A. Nik 22 urte daramatza lan honetan. Nire aitak jubilazioa hartu zuenean ni geratu nintzen bere lanarekin.

Noiz izaten duzue lan gehien?

S.A. Arrantza lanarekin lotuta egoten zen nire lana, itsasontzien arabera zen.

M.A. Barkuak etxean dauden garaietan. Adibidez, udaran 15 egun etxetik kanpora egon ondoren 2 egunetarako etxera etortzen dira. Bi egun horietan gau eta egun lanean igarotzen ditut.

Zer moduzko lana dela iruditzen zaizue?

S.A. Nik oso gustukoa nuen. Arrantzale tartean lanean baina etxean era berean. Ordu-tegi bereziki lan egin beharra zegoen baina gustukoa nuen.

M.A. Lan desberdina da. Ez dago ordu-tegi zehatzik, arrantzaren eta arrantza ontzien arabera da.

Nola hasi zineten?

S.A. Gazte garaitan barku txiki bat nuen eta tartean arrantzara joaten ginen denboraldi batzuk pasatzera. Gero ordea nire andreak arrandegi bat ireki zuen eta biok buru belarri hasi ginen lanean bertan. Azkenean, bizi osoa

itsasoarekin erlazionatutako lanak egiten pasa nuen (getarian ohikoa den moduan) eta poliki poliki lan eskaintza jaso nuen.

M.A. Nire aitak egiten zuen lan petrolero bezala, eta hau erretiratzean hasi nintzen ni.

Egon al da gizonik edo emakumerik inoiz lan hauek egiten? Zergaitik dela iruditzen zaizue?

S.A. Bai. Niri erretiratzeko ordua iritsi zitzaidanean nire alabari pasa nion postua. Gogoia eta libre egotea eskatzen duen lana da baina era berean erraz eramatekoa dela iruditzen zait.

M.A. Bai, nire aita izan zen nire aurretik bertako langilea. Lan hau ezta itsasontzietan lan egitea bezala. Ez dago hainbesteko tradizioa atzetik eta beraz, bi sexuek burutu izan dute lan hau.

Portu inguruko lanak oso bereizita daude generoaren arabera. Zergatik dela uste duzue?

S.A. Tradizioak horrela esaten du eta. Gizonezkoen indarra itsasoko esfortzuarekin lotuta egon da beti eta emakumearen goxotasuna sarea konpontzeko zehaztasunarekin.

M.A. Tradizioarekin lotuta dago. Garain batean emakumeak etxean geratzen ziren, gizonezkoak kanpora joaten zirenean

eta kanpoan zeuden bitartean hauen sareak konpontzeari ekin zioten.

Ba al dago emakume arrantzalerik? Edota gizon jostunik?

S.A. Ez. Arrantzale denak gizonezkoak izan dira beti eta emakumeak jostunak. Hala ere, arrantzaleak itsasoan denboraldi luzeak igarotzen dituztenean eta beraien sareekin arazo txikiren bat izanez gero beraiek josten dituzte beraien sareak. Guztiz zulatzen dituztenean, etxera bueltatu eta bertan konpontzen dituzte jostunek.

M.A. Tamalez, ez.

Marian eta Santiago, aldaketa baten adierazgarri dira. Santiagok bere postua Marian, bere alabarari eman zion, inolako arazorik gabe. Marianek ondo azaldu duen moduan, lanpostu honetan ez dago tradizioarik atzetik portuko beste lan guztietan bezalaxe.



MARIA LUISA

Orduan, emakumeen eta gizonezkoen lan banaketa hori tradiziotik datorrela ikusirik, zer ikuspuntu ote du Maria Luisak horren inguruan? Aldaketa emateko prest ote dago?

Zein da zure funtzioa Getariako portuan?

Maria Luisa. Arrantzaleak portura iristen direnean, sare ugari zulatuta ekartzen dituzte eta sare konpontzaileon funtzioa da hurrengo irteera gauzatu baino lehen guztiak konpontzea.

Nola hasi zinen lan honetan?

M.L. Sareak konpontzea, emakumeon lana izan da beti. Ez dago ez eskola ez akademiarik, ahoz eta arituz, belaunaldiz belaunaldi transmititzen joan den lana da. Niri nire amak irakatsi zidan. Gaztetan kanpora zerbitzari lanak egitera edota etxe ondoan portura joan behar izaten genuen lanera eta niri portuan gelditzea egokitu zitzaidan.

Entzuna dut familia batzuk sare konpontzaileak kanpotik hartzen zituztela, egia al da hori?

M.L. Bai egia da hori. Lehen itsasotik ateratzen zen bizimodua. Txalupa zuten familietan, normalean, gizonak arrantzara joaten ziren eta etxeko bi edo hiru emakume sare konpontzaileak izaten ziren. Etxean ez bazegoen sare konpontzailerik, kanpokoak hartu behar izaten zituzten, ez baitzuten inor beren familiakoei irakatsiko ziotenik.

Gizonezkoek sareak josten dakitela esan dit lehen Santiagok, zergatik ez aritu zuekin batera portuan?

M.L. Gizon arrantzaleek itsasoan behar izaten dutenean josten dituzte sareak, beharrean daudenean eta hori oso gutxitan ematen da. Hala ere, ni pozik egongo nintzateke gurekin hasiko balira baina jada gero eta lan gutxiago dago eta orain arte egin ez dutena orain egitea oso zaila iruditzen zait.

ITSASOA
eta
NATURA



NATURAREKIN BAT...

Itsasoa eta natura izenburupean dagoen zati honek portuan ekonomia zirkular baten laguntzapean portu garbiago eta garapen jasangarriago bat berreskuratzea du helburu.

Zer da ekonomia zirkularra?

Ekonomia zirkularra gaur egun dugun ekonomia linealaren aldaketa da, sistemen filosofian oinarritua eta naturak egiten duen bidea jarraitzea du helburu.

Naturatik lehengaiak lortu, eraldatu eta produktu hori saltzea izan da orain arteko enpresen edota lanen filosofia baina gaur egun dugun klima aldaketa ikusirik soluzio batera iritsi beharrean garela ikusi da, horretarako ekonomia zirkularra da irtenbidea.

Modelo berri honen bidez naturatik lehengaiak lortu, eraldatu eta saldu ondoren, produktu horiek berreskuratzeke aukera dago eta eraldaketa prozesuan lehengai moduan sartzeko. Horrela, jada erabiltzen ez ditugun produktu horiek guztiak berrerabiltzeko aukera eskaintzen da gure naturari lagunduz.



Eta zer lotura du portuarekin?

Portuan bertan zabor ugari sortzen dela zerbait jakina da. Bertan aurrera eramaten diren lan ia guztiek material baten beharra dute eta material horiek gaur edo bihar berriro erabil ezin geratzen dira. Kasu hori ematen denean zakarretara botatzea da ohikoena.

Lan honen helburua, zakarretara bota beharrear beste erabilera bat ematea da. Horrela portuko langileei jada erabil ezin geratu zaien materiala beste batzuentzat lehengai bihurtuz.

Horretarako ezinbestekoa da portuan aurrera eramaten diren lan guztiak sailkatzea, lanak edozein motatakoak badira ere.

Portu batean hauek dira egiten diren lan guztiak:

1. GASOLINA BOTA
2. SAREA KONPONDU
3. KISKILAK SALDU
4. ARRAINA GARBITU
5. MERKATUAN SALDU
6. KONTSERBAK EGIN
7. PAKETATZAILE LANAK
8. ADMINISTRARI LANAK
9. SAREAN KATEATUTAKO ARRAINAK KENDU
10. TRETZAK EGIN

Behin lanak sailkatu ditugula, lan bakoitzean zer material erabiltzen den edo eta erabil ezin geratzen den aztertu behar da. Hala ere kontuan izan behar da, badirela lan batzuk zaborrik sortzen ez dutenak modu zuzenean, esate baterako gasolina botatzeak. Lan honek ez du zabor fisikorik sortzen beraz ekintza horretan ekonomia zirkularra aurrera eramatea ezinezkoa da.

Beraz banan bana erabiltzen diren materialak aztertuko dira:


EKINTZA	MATERIAL baztertuak
1. GASOLINA BOTA	**
2. SAREA KONPONDU	Sarea
3. KISKILAK SALDU	Janari Hondakina, Plastikozko basoak
4. ARRAINA GARBITU	Ura, Lanerako tresnak
5. MERKATUAN SALDU	Janari hondakina
6. KONTSERBAK EGIN	Gatza, Olioia, Aluminiozko ontziak
7. PAKETATZAILE LANAK	Paleak
8. ADMINISTRARI LANAK	Orriak
9. SAREAN KATEATUTAKO ARRAINAK KENDU	**
10. TRETZAK EGIN	**

** Material beharrik ez

Aurreko taulak argi ikusten denez lan guztiek sortzen dute zaborra. Zabor hori berrerabiltzea ez dago maila berean lan guztietan baina bere erabilera bultzatzea posible da.

Hori horrela dela ikusirik, Material baztertu batzuei ekonomia zirkular modeloa jarriko zaie, beste erabilera batzuk eman ahal izateko.

SAREAREKIN



Prozesu honetan arrantzako sarea estrusio bidez plastiko bilakatzen da. Behin plastiko zati txikiak lortuta ditugunean, Irute prozesu jarrai batean murgiltzen da horrela Haria lortuz. Hari hori mota guztietako jantziak egiteko erabil daiteke.

JANARI HONDAKINAREKIN



Janari Hondakina

Konposta →



Abonoa

Janari hondakin ugari sortzen dela ikusirik, konposta egitea izango litzateke modurik egoen beste erabilera bat emateko. Abono horrekin baratze txiki bat jartzea edukiko lukete eta beren lurrek behar dituzten bitaminak beraiek arrantzatutako arrainetatik lortu.

PALEEKIN



Paleak

Pintati eta lijatu →



Dekorazioa

Konposta →



Abonoa

Paleen kasuan bi aukera ezberdin daude, lehengo aukera dekoraziorako erabiltzea izango litzateke, esate baterako aulki gisa, mahai gisa... Bigarren aukera berriz pale biodegradagarrietan dago oinarritua. Kasu honetan Konposta posible izango litzateke eta lehene san modura abono modura erabili zezaketen.



Agur, agur, agur...

AMAIERA

Lan honen ondoren ikus daiteke emakumeen eta gizonezkoen lan bereizketa hori gaur egun ere jarraitzen duen borroka bat dela. Tradizioak indarrean jarraitzen du oraindik ere eta jarraituko duela ematen du. Emakumeek lan ugari egin dute urteetan zehar beraien familiak aurrera ateratzeko asmoz.

Gure amonak, amak, gu, emakumeak, itsasoan mugiezina den aingura hori mugitzen hasi delakoan gaude.

Besterik gabe mila esker lan hau aurrera eramaten lagundu didazuen guztioi.

